



# EUSKARA ETA CURRICULUMA

## 1.SARRERA

Hizkuntza eta literatur arloak berebiziko eginkizuna du hezkuntzaren gaitasun guzti-guztiak lortzeko orduan; izan ere, hizkuntza da giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan. Hizkuntza da gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa. Arlo hori gaitasun nagusien garapenera egindako ekarpenen arabera mahai gaineratuz gero, beharrezkoa zaigu hizkuntza irakaspenaren ikuspegi instrumentala oinarri hartzea. Arlo horren helburua ikasleak prestatzea da, inguruan dituzten hizkuntzak erabiltzeko gai izan daitezen, bizitza pertsonalaren eta sozialaren esparru guztietan.

Hizkuntzak gaitasun nagusiak, konpetentzia orokorrak, garatzeko duen garrantzia ikusita, arloaren helburua ikasleei hizkuntzak behar bezala erabiltzen erakustea da, gizarte bizitzaren eta bizitza pertsonalaren alor guztietan. Helburu horrek finkatu egiten du curriculumean jasotzen den hizkuntzari buruzko ikuspegia: hizkuntza hautazko zeinuz osatutako sistema da eta gizakiek elkarren artean komunikatzeko erabiltzen dute. Hizkuntza sistema bat dela esatean, hizkuntzen egiturazko ikuspegia azpimarratzen da; izan ere, hizkuntzen baitako osagaiak balioa eta esanahia izango dute baldin eta elkarren artean lotzen badira eta osotasunari buruzko erreferentzia egiten badute. Hala ere, sistema horien baitako osagaiak erabilpen zehatzen inguruan egituratzen dira, eta erabiltzen direnean dute esanahia. Sistema eta komunikazioa erabat lotuta daude eta, horregatik, curriculum diseinu honen oinarria hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboa da.

Taldearen arau eta balio kulturalak hizkuntzaren bitartez transmititzen dira. Talde sentimenduak indartu egiten dira taldekideen erabilera ematean eta taldeko ez diren kideak barne harremanetatik at geratzen dira. Talde bat beste taldeetatik bereizten duen guztiak osatzen du taldearen identitatea.

Euskarak iraun ahal izateko, hizkuntza horrek nagusi izan behar du bere hizkuntz eremuan baina, horrekin batera, euskaldunek beste hizkuntza batzuk hitz egiteko gai izan behar dute. Bestela, euskara bera arriskuan egongo litzateke. Ondorioz, helburu nagusia bi osagaiak elkartzea da: batetik, euskarak bere hizkuntz eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, euskaldunak beste hizkuntzak hitz egiteko gai izan daitezela lortzea.

Beharrezkoa izango da Euskal Herrian bizi direnek euskararen normalizazioarekiko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusitzat hartzea. Gainera, hizkuntza sakonki ezagutu eta behar bezala erabiltzen jakin beharko dute. Horrekin batera, nazioarteko komunikazioaren baitako hizkuntza nagusietako bat menderatzeko gai izan beharko dute. Eskola sistemak hizkuntza horiek guztiak erabiltzeko eta ikasteko aukera bermatu beharko du eta, ondorioz, ikaskuntza prozesua arautu egin beharko da helburu hori ziurtatu ahal izateko.

## 2. Arloko eragileak eta hezkuntza

Euskalgintzako eragileak historikoki beti izan dute harremana, garai batzuetan aktiboagoa beste batzuetan baino, hezkuntza edota eskolarekin. Euren lana eskolaren osagarri gisa, ordeko beste batzutan, irudikatu dute. Ondorioz, jabetun dira Euskal Curriculumaren beharraz eta garrantziak. Ezinbestekotzat jotzen dute hizkuntzaren normalkuntzaren bidean, izan ere, egun euskara ez da irakasten euskal kulturaren orubean, hau da, euskal kulturarekin elkarrekintzan. Askotan modu isolatuan irakasten da, hizkuntza bat mezuak transmititzeko, komunikatzeko tresna gisa soilik identifikatuz. Hala ere, jakina da hizkuntzarekin batera herri baten seinu kulturalak eta kosmobisia ere azaltzen dela. Identitatea eraikitzeke orduan funtsezkoa izanik.

Beraz, hizkuntzaren normalkuntzaren bidean, ezinbestekoa da beste urrats sendo bat egitea; euskara

bere testuinguru sozial eta historikoan irakastea, kontzientzia piztea, azken honek bermatuko baitu erabilera. Eta horretarako hezkuntza arautua eta ez-arautuak parametro berdinetan egin behar dute lan, heziketaren ikuspegi integralaz jabe izanik eta elkarrekintza modu dialektikoan ulertuz. Honenbestez, arloko eragileak euren eginbehar eta garrantziaz jabetun dira. Jendartearen heziketan duten egitekoaz arduraturik, bereziki euskararen normalkuntzaren bidean, hezkuntza arautuarekin harreman urbila dute.

Eskoletan euskara irakasgaiaren lanketan dauden hutsune eta gabeziez jabeturik proposamen zehatzak ere kaleratu dituzte, Behatokiak osatutako unitate didaktikoa kasu.

Heziketaren ikuspegi integralaren kontziente izanik gogo handiz parte hartu dute prozesu honetan, ekarpen kuantitatibo eta kualitativa eginez. Herriaren eraikuntzan gizarte eragileen abangoardia aldarrikatuz eta instituzioen babesa eskatuz, Euskal Curriculumaren prozesuaren beharra, sorrera eta garapena babestu eta txalotzen dute.

Funtsezko protagonismoa izan behar dute herri eragileek. Izan ere eskoletan ematen den heziketaz, hezkuntza formala, eta gizarte eragileek, komunikabideek, eskolaz kanpoko ekintzak..., hezkuntza ez formala, osagarriak izan behar dute.

Edukiez gain, gizarte eragileek modu apal batean, bereziki baloreetan ekarpenak egiteko aldekoak dira. Izan ere, oso garrantzitsua iruditzen zaie gizarte eragileen lan egiteko modua. Auzolanean nahiz bata bestearekin, elkarrekin, lan egiten.

Instituzioen papera ez du izan behar egitasmoen buru izatearena, lideratzea. Baizik eta egitasmoak bultzatu eta indartu egin behar dute. Bide honetan zorientzekoa da Udalbiltzak burutzen duen lana.

## **2.1 Arloko eragile nagusiak.**

- I. Euskararen normalizazioaren aldeko gizarte erakundeak:  
ehe  
kontseilua.  
oinarriak  
Herrietako euskara taldeak : uztarria,ttakun,tiki-taka... (horietako asko TOPAGUNEAN bildurik).
- II. Hizkuntza eskubideen BEHATOKIA.
- III. Soziolinguistika jorratzen dutenak:  
Soziolinguistika klusterra.
- IV. Helduen euskalduntzerako eragileak:  
AEK  
IKA  
HABE

## **2.EUSKARA HEZKUNTZA SISTEMAN.**

### **2.1. INDARREAN DAUDEN HIZKUNTZA POLITIKEN ONDORIOAK.**

Gure herrian indarrean dauden hizkuntza politiken ondorioa esaldi batean laburbil daiteke: egungo eskolak ez du euskalduntzen. Lege, dekretu eta neurrien marapila horren gainetik, horixe da errealitate argi bezain kezagarria. Jarraian errealitate horren aurpegi nagusiak aipatuko ditugu.

### 2.1.1 Eskolak ez du euskalduntzen: HIRU IKASLETIK BI EZ DA EUSKALDUNDUKO

Euskal Herri osoko argazki orokorra egiten badugu, honako datu hauek aterako zaizkigu<sup>1</sup>:

89.666	euskal ikaslek klase guztiak gazteleraz edo frantsesez jasotzen ditu, euskarazko irakasgairik gabe ( <b>ikasleriaren %20,7</b> )
106.269	euskal ikaslek klase guztiak gazteleraz edo frantsesez jasotzeaz gain, <i>Euskara</i> irakasgaia ematen dute, lau ordu astean ( <b>ikasleriaren %24,6</b> )
72.419	euskal ikaslek hainbat klase erdaraz eta beste hainbat euskaraz jasotzen ditu, ( <b>ikasleriaren %16,7</b> )
164.375	euskal ikaslek klase guztiak euskaraz jasotzen ditu, eta <i>Gaztelera</i> edo <i>Frantsesa</i> irakasgaia ematen du astean lau orduz ( <b>ikasleriaren %38</b> )

Beraz, kontutan hartuz D ereduak soilik bermatu dezakeela ikasleen euskalduntzea (bermatu baldin badezake), euskalduntzeko aukera izango luketen ikasleak %38 baino ez direla ondorioztatzen dugu. Baina, gainera, ikasle hauetako askok beren ikasketak eta bizitza euskaraz garatzeko zailtasunak izango dituzte, alde batetik hainbat eskualdetan D ereduaren ikasitako gazteak euskaraz normaltasun osoz aritzeko zailtasunak dituztelako, eta beste alde batetik lanbide heziketan eta unibertsitatean euskarazko eskaintza oso murrizta delako.

### 2.1.2. Eskolak ez du euskalduntzen: EUSKALDUNDU GABEKO BELAUNALDIAK ATERAKO DIRA URTERO

Egoera bere horretan mantentzen den bitartean, euskaldundu gabeko belaunaldiak aterako dira urtero-urtero eskoletatik.

- Hurrengo hamazortzi urteetan euskaldundu gabeko **268.354** euskal ikaslek amaituko dituzte beren ikasketak.
- Hau da, batz bestea **14.908** ikasle urtero.

Denboraren parametroa garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Izan ere, badago joera itxaropen guztiak D ereduak haur hezkuntzan bizi duen igoerarengan jartzeko. Bitartean, ordea, 268.354 ikasle ez direla euskaldunduko normaltasun osoz hartzen dute agintariek.

**Gainera, kontutan hartu behar dugu D ereduaren igoera moteltzen ari dela:**

- **1991/92-1996/97** bost urteko epean **%52,2** egin zuen gora.
- **1997/98-2002/03** bost urteko epean, berriz, **%24,0** egin zuen gora.

Hau da, azkeneko bost urteetan D ereduaren hazkunde tasa erdira jaitsi egin da.

### 2.1.3 Eskolak ez du euskalduntzen. ETA EUSKARAZ IKASTEKO AUKERA BERA UKATU EGITEN DA HAINBAT ESKUALDETAN

Euskal Herriko hainbat eskualdetan euskaraz ikasteko aukera bera ukatu egiten da. Hau da, kontua ez da soilik eskualde horietako hainbat eta hainbat ikasle ez direla euskalduntzen, baizik eta horretaz gain euskaraz ikasteko oztopoak jartzen dituela administrazioak (Nafarroa Garaiko hegoaldean, Behe Nafarroan, Lapurdin, Zuberoan). Alde batetik, ez dute baimentzen euskarazko irakaskuntza sare publikoan, beste alde batetik, ikastolei hainbat eta hainbat oztopo jartzen dizkiete. Horrekin batera, ez da ahaztu behar beste leku askotan, nahiz eta teoriarik D ereduaren eskaintza egon, gero, praktikan, leku faltaren aitzakiaz, ikasle asko beste eredu batera pasatu behar direla edo beste herri batetara joan.<sup>2</sup>

<sup>1</sup> Aztiker: "Hizkuntza ereduak Euskal Herrian. Datu bilketa", 2.004.

## **2.1.4 Eskolak ez du euskalduntzen. ONDORIOZ, HIZKUNTZA ESKUBIDEAK SISTEMATIKOKI URRATZEN DIRA EUSKAL HERRI OSOAN**

Hizkuntza eskubideak urratzen dira, hots, ezein pertsonak bere herriko hizkuntza jakiteko eta ezagutzeko duen eskubide kolektibo eta indibiduala ez da betetzen. Ondorioz, euskararen biziraupena bera kolokan jartzen da. Izan ere, gaztelera eta frantsesa euskal herritar guztientzat derrigorrezko hizkuntzak dira eta jendarte esparru guztietan inposatzen zaizkigu. Euskara, berriz, eskolan ez ezik, jendartean ere bazterturik eta bigarren mailan dago eta, egungo globalizazio fenomenoaren aurrean, neurriak hartzen ez baditugu bere etorkizuna ez da ziurtatzen. Eskolak ezinbesteko papera jokatzen du horretan.

## **2.2. EUSKARA IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUAN**

Ikastetxeetan euskara alorraren lanketan gabezi nabarmen batekin topatzen gara egun. Bereziki, gramatika eta literatura lantzen dira, hau da, hizkuntzaren *corpusa*. Poztekoak diren salbuespenak salbuespen, gainontzeko hizkuntza lez irakasten da euskara bizi duen egoera aintzat hartu gabe. Hau da, kontzientziatzeko lana ez da burutzen eta kontzientzia linguistikoa sustatzeko ahalegina oso urriak dira, apika, faktore hau izanik esanguratsuenetakoa jakintza maila eta erabileraren arteko desfasea ulertzeko. Izan ere, gaur arte behintzat, eskubideen ikuspegia, soziolinguistika edota ikuspegi historikoa ez dira garatzen modu sistematikoan. Hizkuntzaren *estatusa* oso modu apalean lantzen da, ikaslearen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan inolako segidarik gabe eta ebaluatzeko inongo irizpiderik finkatu gabe. Kontzientzia linguistikoa indartzeari uko egiteak, batetik, erabilerari ateak ixteak dakar. Bestetik, aldiz, euskalgintzan lanean diharduten eragileen balioa eta lana ez aitortzea.

Euskararen irakaskuntza integrala izan dadin bi atal hauek *estatusa* eta *corpusa* modu bateratu eta osagarrian irakastea dakar. Hizkuntzaren egitura irakastearekin batera hizkuntzaren egoera, bilakaera eta hiztunen eskubideak landu beharko lirarteke. Hizkuntza ikastearekin batera erabiltzeko motibazioa piztuz eta indartuz.

## **2.3. EUSKARA IDENTITATE ETA KULTUR EZAUGARRI BEZALA.**

Diagnostikoarekin amaitzeko aipamen labur bezain garrantzitsua. Aurreko ataletan argi adierazi da batetik eskolak ez duela euskalduntzen eta bestetik kontzientzia linguistikoa ez dela bezain beste lantzen, azken faktore honek erabileran eragin zuzena duelarik. Baina, hemen ez dira gabeziak amaitzen, izan ere eskolak ez du euskalduntzen ez soilik euskara menperatzeko gaitasun tekniko nahiko ematen ez duelako, baizik eta euskaldun bezala hezten ez duelako. Euskara sendotzeko eta ikasteko soro emankor bat behar du. Hizkuntza modua aseptiko batean ikasi-irakasteak komunikatzeko tresna bezala soilik identifikatzea dakar. Adu ezberdinek argi adierazi dute hizkuntza ez dela komunikatzeko tresna soil bat, aldi berean herri baten mundu sinbolikoa islatzeko eta transmititzeko gaitasuna baitu. Beraz, ez da nahikoa euskara menperatzea, alta, euskaldun gisa pentsatzen, amesten... azken batean bizitzen ikasi-irakatsi behar dugu.

## **3. EUSKARA EUSKAL CURRICULUMEAN.**

### **Planteamendu orokorrari dagokienez ( marko orokorra).**

Hizkuntzaren alorrean, euskararen egoeraren eta balizko soluzioen inguruan egindako hainbat interpretaziok ñabardurak behar dituztelakoan gaude. Izan ere, ikuspegi orokorrean egiten den irakurketak berebiziko garrantzia du segidan proposatzen diren edukiekin. Argi izanik, gure helburua euskararen normalkuntza dela, eta euskal herritar guztiak beren herriko hizkuntza ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea aldarrikatuz, honako argibide hauek kontutan izatea beharrezkotzat jotzen dugu:

- Hizkuntzaren alorreko proposamenak normalizazio prozesuaren helburua eta norabidea

---

<sup>2</sup> Esaterako, Bilboko Atxuri, La Vieja eta San Frantziskon; Ermuan eta Muskizen; Iruñeko Donibane auzoan. Herri eta auzo hauetan ikasleei D eremuan ikasteko eskubidea ukatzen zaie hainbat ikasleri.

garbi adierazi behar du . Euskararen normalizazioa lortzea herri euskaldun bat lortzea da, sozialki elebakarra eta herritar eleanitzez osatua. Euskal jendartearen herritar eleanitzak egon badaude, hizkuntza bat, bi, hiru edo gehiago jakin ditzaketenak, baina jendartearen bera, erdalduna, elebakarra da. Gaztelaniadun elebakarra Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa Garaian. Frantses elebakarra Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuan. Alegia, jendartearen hizkuntza bat izan behar da, ez dago elebitasun edo eleaniztasun sozialik, bai ordea pertsonala.

- Hizkuntza, herri baten funtsezko zutabe izanik eta gure kasuan euskarak Euskal Herrian bizi duen egoera aintzat izanik, formulatu beharko litzateke hizkuntza eta literaturaren jakintza arloa. Euskararen normalizazioa, zentzu zabalean ulertuta, lortzea herri euskaldun bat lortzea da, sozialki elebakarra eta herritar eleanitzez osatua, ezinbestean, euskararen erabileraren gaitasun formala eta ez formala bermatu behar dituenak.

### **Edukiei dagokionez.**

Lortu beharreko gaitasun nagusien inguruan hainbat behar aipatzen dira txostenean eta alde horretatik bat gatzat proposatzen direnekin. Halere, hau esanda, gure ustez jaso beharko liratekeen edukien nondik norakoak hauexek lirateke:

- Hizkuntzaren inguruko kontzeptu eta azalpen teorikoen lanketa. Hizkuntza, hizkuntza eskubideak, hizkuntza komunitatea, hizkuntza ordezkapena, elebakartasuna, elebitasuna, diglosia, ofizialtasuna, hizkuntza politika... Aztertu behar da honen guztiaren inguruan non jarri beharko liratekeen lehentasun nagusiak.
- Euskararen inguruko irakurketa orokor bat izan behar dugu ardatz, iragana, oraina eta geroan kokaturik. Honek guztiak elementu asko jaso ditzake.
- Euskararen jatorria landu behar den bezala, hizkuntza bat eta kasu honetan gurea, Euskal Herriaren nortasunaren adierazle dela nabarmendu beharko genuke. Ez dago herririk hizkuntzarik gabe, baina ezta hizkuntzaren gerorik herririk gabe ere. Hizkuntza eta herriaren arteko lotura nabarmentzea garrantzitsua da, ezin baita hizkuntza bat modu aseptikoan ulertu. Batak ezinbestez behar du bestea eta hor kokatzen da lurraldetasunaren auzia, hizkuntza komunitatea...
- Euskararen bilakaera historikoa ezinbestez landu beharko litzateke. Batetik, herri honek bere hizkuntzari eusteko egin duen lana eta erabili dituen mekanismoak aipatu behar dira, baina noski, hau erabat loturik dago, jasan dugun eta jasaten dugun zapalkuntza linguistikoa eta kulturalarekin. Herri honek ordezkapen prozesu bat pairatu behar izan du eta horren gako nagusiak ongi ezagutu behar dira. Garai ezberdinetako aldaketa nagusiak, ordezkapen horren eragileak zeintzuk diren, erabili diren metodoak, izan dituzten ondorioak, jarrerak... Beharrezkoa da horien azalpen egoki eta jarraitu bat egitea.
- Bilakaera horrek historia hurbilera ekarri behar gaitu, egun gure hizkuntzaren egiturazko egoera ezartzen duen momentura. Historia hurbila (azken 30 urteak?) ongi lantzea ezinbestekoa da, bertan aurkituko ditugulako egungo egoeraren klabe nagusienetakoak. Euskararen estatusa, hizkuntza eskubideen urratzea, hizkuntza komunitatearen desegituraketa, instituzioen politika suntsitzaileak... Beti ere honen aurrean euskaldunok ezarri ditugun mekanismoak eta normalkuntza prozesuan egin diren urratsak azalduz.
- Euskararen aurkako errepresioak trataera berezia izan beharko lukeelakoan gaude. Izan ere, hizkuntzarekiko atxikimendua indartzeaz gain erabilera sustatu dezake.
- Euskara batuaz gain, ikasleek beren inguruko euskalkiak, tokian tokiko ñabardurak kontutan hartuz, ezagutu eta erabiliko dituzte, euskara batuaren ekarpen eta aberasgarritasun gisa. Era berean, ezagutu eta erabiltzeaz gain, euskaraz eta euskaldun bezala pentsatu eta ekoiztu.
- Bestalde, sakon aztertu behar da euskararen normalizazioaren aldeko lana eta oro har euskararen defentsan egin dena. Euskaldunok nola iritsi gara gure hizkuntza bizirik mantentzera? Nola iritsi gara gainera oraindik gure hizkuntza normalizatua izan dadin aukera zabalik izatera?
- Bilakaerari loturik, historikoa zein kulturala, egungo egoeraz jabetzea ere ezinbestekoa da. Datuez gain, irakurketa ezinbestekoa da. Une honetan zertan den euskararen egoera eta zertan den normalizazio prozesua. Hizkuntza normalizatzeko egiten ari den ahalegin eta

lana, jorratzen ari diren egitasmoak...

- Honekin lotuta, euskararen jendarte eragileen ezagupena izatea ere beharrezkoa litzateke. Erakunde nagusiak, bakoitzak prozesuan jokatzen duen papera, ezaugarriak... Hedabideak, hizkuntza eskubideen defentsa egiten dugunak, helduen euskalduntzea, ikastolak... Hauen zehaztapena egin beharko litzateke.

- Hizkuntza eta herriaren arteko lotura azpimarratu, batak bestearen beharra du izateko.

- Hizkuntza formala lantzearekin batera, beharrezkoa da eguneroko erabilpenari dagokionari loturik hizkuntza ez formala ere ezagutzea.

- Oso interesgarria izango litzateke eskolaz kanpoko parte hartzea gaitasun eta eduki hauen guztien lanketan. Hots, jendarte eragileok joka dezakegun papera azpimarratu beharko genuke. Euskal ikasleei begira eskola kanpotik nola eragiten dugun, ze ekarpen eta nola egiten dugun aztertuz. Horrek ohiko eskola eredu gaitasun eta eredu berri batetara eramango gintuzke : Herri bertako eragileetatik hasi eta nazio eragileetaraino.

- Hizkuntzari dagokionez, Euskal Herriko ordenamendu juridikoa jakin beharko lukete.

- Udaltzaren eskubideen karta txertatu beharko litzateke edukietan.

## PROZEDURAK.

Prozedurei dagokionez, ikasleek honako prozeduren jabe izan daitezten lagundu behar zaielakoan gaude:

- Hizkuntza eskubideak ezagutuko ditu hauen gaineko hausnarketa errealak egiteko. Era berean eskubide horiek urratzen direnean direnean bere kexa edo salaketa non eta nola bideratu jakingo du.
- Euskararen bilakaera historikoa eta hiztunen ezaugarriak sailkatzea.
- EH osatzen duten, herri zein herrialdeen euskararen egoera deskribatzen ikastea.
- Euskara hizkuntzen munduko mapan kokatzen jakitea.
- ezentasunen arabera, etorkizuneko lan ildoak kritikoki sailkatzen ikastea.
- Nork berak bere ingurua ezagutuz hemendik, ingurune hurbiletik abiatzea, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua.
- Zehar lerro gisa lantzea jakintza arloa. Hau da, hizkuntzaren *estatusa* eta *corpusa* lantzea ez dagokio hizkuntza irakasleari soilik. Beste jakintza arloetan ere landu beharko litzateke, modu osagarrian.
- Hezkuntza formala eta ez formalaren arteko osagarritasuna ulertu eta praktikan jarri.
- Gaitasun kritikoa indartu. Euskararen normalizazio bidean eurak direla subjektu aktiboak ulertzea.
- Erabileraren garrantziaz ohartzea eta euskararen hiztun aktiboak bilakatzea.
- Ahozkoitasuna lantzearen garrantziaz jabetzea.
- Esparru funtzionalean ere euskararen egoera baloratzeko gai izatea.

## BALIOAK.

Euskararen aldeko sentimendua piztea eta indartzea beharrezko da erabilerari dagokionez. Euskara jakin eta erabiliko duten herritarrak behar ditugu; horretarako beharrezkoa da euskararekiko atxikimendua landu eta indartzea. Beraz, atal honi berebiziko garrantzia ematen diogu:

- Euskararekiko atxikimendua bultzatzea.
- Hizkuntza menperatuei, hiztun kopuru apala dutenei, elkartasuna adieraztea.
- Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza eta norbanakoarena dela sentitzea.
- Beste hizkuntza eta kulturekiko errespetua indartzea.
- Dagozkigun hizkuntza eskubideen jabe izatea.
- Euskararen berreskurapena geure eskuetan ere badagoela ulertzea eta barneratzea.
- Herri mugimenduaren balioaz ohartzea.
- Euskararen alde ospatzen diren jai, mobilizazio eta ekimen desberdinetan beren begirunea eta ahal den neurrian laguntza eskaintzea.

- Euskararekin gozaten ikastea.
- Komunikazioa mota oro errespetuzkoa izan behar duela jabetzea.
- Sexista izan daitekeen edozein adierazpen baztertua modu aktibo batean.

Euskarak errotzeko soro emankorra behar du. Izan ere, euskara menperatzearekin batera bere erabilera sustatu behar da, eta horretarako ezinbestekoa da ekosistema egokia izatea, gure kasuan euskal kultura eta honenbestez Euskal Curriculum dena..

#### **4. DOKUMENTAZIOA**

Atal honetan euskara lantzeko publikazioak izango ditugu aipagai; gelan lantzeko proposak direlakoan:

BEHATOKIA (2004): *Hizkuntz eskubideak EZAGUTU eta EUTSI*. Mondragon unibertsitatea. DBHko edozein ikasturtetan lantzea dagoen unitate didaktiko bikain honek bi xede nagusi ditu:

1. Ikasleak beren hizkuntza-eskubideez oharraraztea.

2. Hizkuntza-eskubideen urraketen berri emateko tresna eskaintzea.

Helburu horiek lortu ahal izateko **unitate didaktikoa bost ataletan banatuta** dago:

1) Lehenengo atalaren helburua da **munduko hizkuntz aniztasunaz** eta hori deusezten ari **den prozesu globalizatzeari** ohartaraztea.

2) Munduko hizkuntzen egoerari begirada azkar bat eman ondoren, hizkuntza guztiei dagozkien **eskubideak** lantzen dira. Horretarako, gaur egun munduan eta Europan indarrean dauden lege eta printzipioen zertzelada nagusiak aztertuko dituzu.

3) Hirugarren atalaren helburua da jadanik barneratutako eskubide horiek **Euskal Herriko legeek** aitortzen dituzten ikustea.

4) Gero, Euskal Herrian euskararen eskubideen defentsan ari den Hizkuntz Eskubideen **Behatokia** aurkezten da: erakunde hau zer den eta zer lan ildo dituen ezagutzeko du helburu laugarren atal honek.

5) Azkenik, Behatokiak hizkuntz eskubideen urraketak salatzen duen trenza eraginkorra aurkezten da: **EUSKARAREN TELEFONOA**. Hori erabiltzea du helburu azken atal honek.

Bestalde, ikastunitatearen izaerari dagokionez, ikasleek bizi dituzten **egoera errealak** hartzen ditu oinarritzat eta edukiak **modu didaktiko eta mailakatuan** lantzen dira; gainera, **ikasleen aurre-ezagutzetatik** abiatzen da eta horien **inplikazioa lortzeko** estrategiak lantzen dira.

Atal bakoitzak honako egitura du:

· Hasieran landuko diren **HELBURUAK** aurkezten dira eta bukaeran ikasitakoa gogorarazten da **ORAIN BADA KIZU** izeneko arloan.

· Bi atal hauen artean, ikasi beharreko edukiak ariketa eta teoria bitartez **JAKIN/BA AL ZENEKIEN...** lantzen dira. Ariketa bakoitzaren izenburuan ariketaren funtsa adierazten da; hau da, **AURKITU**, **HAUSNARTU** izenburuek adierazten dute ariketan zer egin behar duten.

Laburbilduz, hauxe da atal bakoitzak duen egitura:

§ **HELBURUAK**

§ **ARIKETAK: HAUSNARTU, ENTZUN...**

§ **EDUKIAK: JAKIN/BA AL ZENEKIEN...**

§ **ORAIN BADA KIZU**

Honez gain, atal bakoitzaren amaieran **GEHIAGO JAKITEKO...** izeneko atal bat dago: atal honen bitartez irakasleak aukerako informazio osagarria eta ariketa gehiago izango ditu klasean lantzeko.

Informazio gehiagorako ikus: [www.behatokia.org](http://www.behatokia.org)

JAUREGI,Pello;EGIZABAL,Diego;HUEGUN,Axier; eta beste (2000): *Kuadrillategi.Gazte-ak eta euskara.Gazteen euskararen erabilera sustatzeko gida* liburuan,130-141.Lasarte-Oria.Hik Hasi.

Modu argigarri eta labur batez gazteen euskararen erabilera suspertzeko irizpideak finkatzen ditu. Lehenik, marko teorikoaren nondik-norakoak azaltzen dira. Bigarrenik, ikerketa zikloan eman zen ikerketaren nondik-norakoak ere biltzen dira labur-labur, baita orduko marko metodologikoa. Beste herrietako esperientziak ezagutzeko dokumentu proposa.

EGIZABAL OLLOKIEGI,Diego (2004): *Kuadrillategi 2001-2003.Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak*. Caja Laboral-Euskadiko Kutxa.

Hirugarren ikerketa zikloan eman zen ikerketaren nondik-norakoak biltzen dira xehetasun osoz. Irakurterreza, esku-hartzearen marko metodologikoa azaltzeaz gain, esku-hartzearen emaitzak ere xehetasun osoz biltzen ditu liburuak. Kuadrillategi egitasmoaren eraginkortasunaz jakin nahi duen liburu honetara joko beharko du.



	HELBURUAK	HARTZAILEAK	METODOLOGIA	PUBLIKAZIOAK EDOTA TAILER ESKAINTZAK	WEB ORRIA e-posta
EUSKARAZ BIZI	Euskararen Normalkuntzan sakontzea du helburu, aurrerapausoak ematea, ikasleen bizitzako esparru eta funtzioetan euskararen ezagutza eta erabilera orekatzea, alegia. Euskal Eskola ez da euskara ikasteko gunea soilik, ikaslea euskaraz bizitzera animatu eta bultzatuko duen mikroespazio eraginkorra baizik	Haur hezkuntza. Lehen Hezkuntzako 1. zikloan, euskararen sustatzaile nagusi bezala, Argitxo iratxoa hautatu genuen. Pertsonaia maitagarria da, eta ikasleei hain gogoko zaien magikotasunean oinarrituta, ikaslearen bizitza esparru guztietara euskararen aldeko mezua hedatzen saiatzen da DBH nahiz DBH0 ikasleak	Kanpainak, lehiaketak, jolasaldiak, norbaiten bisita... Hauek ikasleak gustukotzat hartzeaz gain, gai ikusten badu bere burua ekintza horren bidez errefortzu hori bereganatzeko, eta ikastetxearen eraginez euskaraz lotzen badira: apurka-apurka GUSTUKO EKINTZA eta EUSKARA lotuz joango dira, EUSKARAZ EGINEZ, eta, eginaren eginez, EUSKARA BARNERATUZ. Eskola Antzerkia, Kantagintza, Bertsolaritza eta Deklamazioa proiektuak nagusitzen dira.	Argitxoren ipuinak, panpinak, abestiak...	<a href="http://www.ikastola.net">www.ikastola.net</a>

	HELBURUAK	HARTZAILEAK	METODOLOGIA	PUBLIKAZIOAK EDOTA TAILER ESKAINTZAK	WEB ORRIA e-posta
EUSKARAZ MINTZA	<b>Helburu orokorra ikasle goak euskaraz egitea izaki, ikasleei ama eta kaleko edota familiako hizkuntzak ematen ez dizkien erregistro hurbilak eskaintzea</b>	Irakasleak. Haur eta lehen hezkuntzako ikasleak. Gurasoak.	Bitarteko gisa jolas tradizionalak erabiltzen dituzte, partehartzea erretzen dutelako batetik eta, gaur egun erabiltzen ez direnez, ohitura linguistikoak ez direlako oztopo bihurtuko bestetik. Era berean aipatu jolas hauek ez dutela konpetibitate sortzen. Hortaz gain jokoak berpizteko aukera ere bada kirolen eraginez betirako gal ez daitezten. Bigarren mailako helburuak ere sortzen dira jolasen inguruan.	<b>JOLAS TAILERRAK KONTU TXIKIAK JOLAS TAILERRAK ETA KONTU TXIKIAK</b>	<a href="http://www.sortzen-ikasbatuaz.org">www.sortzen-ikasbatuaz.org</a>

	HELBURUAK	HARTZAILEAK	METODOLOGIA	PUBLIKAZIOAK EDOTA TAILER ESKAINTZAK	WEB ORRIA e-posta
ULIBARRI	<p>Azken urteotan, euskararen didaktikan, irakasleen hizkuntza prestakuntzan, materialgintzan eta ikasleen ezagutza eta erabileran ahalegin handiak eta aurrerapen itzelak eman dituzte EAEko ikastetxeek.</p> <p>Emandako urratsak sendotu nahian eta ikastetxe mailako hizkuntza normalkuntza ahalbideratzeko Plan osatu bat abian jartzeko beharra ikusi da. Honek, aurrera eman diren proiektu partzialak bildu ez ezik, hizkuntza-komunitatea osatzen duten gainerako partaide helduen (irakasle, guraso, monitore, ...) arteko harreman-bizitzan eragile izan nahi du.</p>	<p>Ikastetxearen antolakuntza Zuzendaritza, dokumentazioa, material pedagogikoa, liburutegia, pasaia linguistikoa.</p> <p>Irakasleak Motibazioa,erabilera Ezagutza.</p> <p>Ikasleak Motibazioa,erabilera Ezagutza.</p> <p>Gurasoak Motibazioa,erabilera Ezagutza.</p> <p>Langile ez-irakasleak Motibazioa,erabilera Ezagutza.</p> <p>Euskararen inguruko erabakiak Ikastetxeko hizkuntza proiektua (IHP), Curriculum proiektua, AIA, ikasturteko plana</p>	<p>Urteko Memoria: Ikasturte bukaerako hausnarketa txostena (Galdekizuna).</p> <p>Urteko Plana: Proiektu orokorra eta memorian oinarrituz osatzen den urteko plana.</p> <p>HNPren eguneratzea: 4 urtean behin egin beharrekoa</p>	<p><b>Ikastetxearen antolakuntza:</b> Zuzendaritza, Lan taldeak, Dokumentazioa, Material pedagogikoa, Liburutegia, Pasaia linguistikoa</p> <p><b>Irakasleak:</b> Motibazioa, ezagutza, erabilera eta partaidetza</p> <p><b>Ikasleak:</b> Motibazioa, ezagutza, erabilera eta partaidetza</p> <p><b>Gurasoak:</b> Motibazioa, ezagutza, erabilera eta partaidetza <b>Normalkuntza sustatzeko erabakiak:</b> Hezkuntza proiektuan, Curriculum proiektuan, AIA, Ikasturteko planean, Aurrekontua, Bestelakoak, Urteko memorian...</p>	<p><a href="http://www.ulibbarri.info">www.ulibbarri.info</a></p>

	HELBURUAK	HARTZAILEAK	METODOLOGIA	PUBLIKAZIOAK EDOTA TAILER ESKAINTZAK	WEB ORRIA e-posta
KUADRILLATEGI		<p>14 urteko gaztetxoei eskainiko zaie egitasmoa, hots, DBH3 mailakoei.</p> <p>Bi urtez iraungo du egitasmoak, beraz 16 urte izango dituzte bukatzean.</p> <p>Hiru baldintza bete behar dira ezinbestean egitasmoan parte hartzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasketak B ala D ereduan egitea</li> <li>- Taldekako izen ematea: gutxienez 5 lagunek behar dute izena eman.</li> <li>- Egitasmoaren jardueretan euskaraz mintzatzea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikerketak aisialdi eskaintzaren itxura hartuko du gazteei aurkezterakoan.</li> <li>2. 14 urteko gaztetxoei eskainiko zaie egitasmoa, hots, DBH3 mailakoei.</li> <li>3. Bi urtez iraungo du egitasmoak, beraz 16 urte izango dituzte bukatzean.</li> </ol>	<p>Egitasmoak bi jarduera mota eskainiko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kultur tailerrak: 4 orduz asteen, herrian bertan</li> <li>- Oporraldietako jarduera ludikoak: herrien artean</li> </ul> <p>Tailer bakoitzak hiru lagunarte ezberdin elkartuko ditu eta dinamizatzailer batek hartuko du haren ardura.</p> <p>Hilabetean behin aldatuko dira tailerreko partaideak, hiru lagunarte ezberdin elkartuz aldi bakoitzean.</p> <p>Lagunarte bakoitzak lau bilera egingo ditu ikasturteko dinamizatzailer batekin, beren satisfazio mailari neurria hartzeko.</p>	

	HELBURUAK	HARTZAILEAK	METODOLOGIA	PUBLIKAZIOAK EDOTA TAILER ESKAINTZAK	WEB ORRIA e-posta
TTAKUN	Euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa sustatu nahian dabilen elkartea da. Egitasmo edo jarduera puntual solte batzuk izatetik, programa, egitarau eta ekintzez osatutako urteroko programa iraunkor eta irmo bat izatera iritsi da urteen poderioz.	<p><b>IKASLEENTZAT</b> Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat, batxilergoetako ikasleentzat eta heziketa-zikloetako ikasleentzat (D nahiz B ereduan dabiltzan ikasleentzat).</p> <p><b>IRAKASLEENTZAT</b> Lehen Mailako Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten irakasleentzat.</p> <p><b>GURASOENTZAT</b> Lehen Mailako Hezkuntzako ikasleen gurasoentzat, bereziki.</p>	<p><b>ZERTARAKO</b> Jolasen, ariketen, dinamiken eta azalpenen bidez, ia ohartu gabe, erraz eta gogoz, euskaraz hitz egiteko, eta euskara baliatzeko motiboez, zergatiez eta arrazoiez jabetzeko.</p> <p><b>ZERTARAKO</b> Euskararen kontuan, hizkuntzen kontuan... nola lan egin aztertzeke eta arazoei aterabide arrazoizkoak ematen laguntzeko.</p> <p><b>ZERTARAKO</b> Euskararen kontuan, hizkuntzen kontuan... seme-alabekin, haien lagunekin, familiarekin eta beste gurasoekin nola jokatu jakiteko. ziolinguistikako teoria eta praktika nagusienak jasotzeko</p>	Lagunarteko hitzontzia  Lagunarteko hizkerarekin jolasean.	<a href="http://www.ttakun.com">www.ttakun.com</a>